



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

EMILIA ZUZA BRUN HLHI

Ikastetxearen kodea:

014926

Data:

2023(e)ko ekainaren 12(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Gure ikastetxea Santurtziko Kabiezes auzoan dago kokaturik. Auzo hau Santurtziko auzorik populatuena dugu. Bertan ikastetxe publiko bakarra dago, geurea.

Gure ikasleen familien artean, ekonomia-maila desberdinak badaude ere, maila baxuko zenbait familia daudela nabarmendu egin behar da. Bestalde, migranteen kopurua gorantza doa eta ezin da ahaztu etnia minorizatu bateko kideak ditugula, gero eta gehiago gainera.

Santurtziko Udalarekin elkarlanean aritzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Gure OOG-n, nola ez, udaleko ordezkari bat dago eta hainbat zerbitzurekin kontaktuan gaude. Hilabetero zuzendaritza taldea, eskolako aholkularia eta Santurtziko Gizarte Zerbitzuko langileak ikasle absentisten edo beste arazoengatik inguruko jarraipen saioak burutzen dituzte.

Gure ikastetxeak, HH 3, 4 eta 5 urteko eta LHko 5. mailan izan ezik, bi lerro ditu gainerako maila guztietan, ikastetxe ertaina da beraz. Hala eta guztiz ere, matrikulazio-kanpaina desberdinetan ari gara somatzen gero eta ikasle gutxiago jasotzen ditugula. Etorrizunari begira, ikusten dena zera da: ikastetxeak duen matrikulazioa beherantza doala eta joera lerro bakarreko ikastetxe bat bilakatzea dela. Ditugun taldeak gero eta txikiagoak dira eta aniztasun handikoak gainera, non gutxiengo etniko kopurua altua den eta etorkinena gorantza doan.

Zortziehun bat metroz banatuta dauden bi eraikinek osatzen dute ikastetxea, bakoitzak etapa desberdin bat hartzen duela.

Eskolako antolakuntza, ordutegiak (maisua, maistra batzuk, musika, ingelesa, aholkularia... bi zentroetan egin behar dute lan), koordinaketa saioak edo klaustroak burutzerakotan, saio batzuk galtzen ditugu. Gurasoentzako ere oztopo nabarmena izaten da, komuneko ekintzak, batzarrak ... egitean eta seme-alabak bi etapa izaten ezin dute behar den moduan parte hartu.

Irakasleriak prestakuntza saio desberdinak burutu egiten ditu asteazkenetan, non eskolan dauden proiektu desberdinak garatzeko formazioa jasotzen duen: elkarbizitza, hizkuntza proiektua, agenda 2030, IKT heldutasuna, ...

Ezin da ahaztu, arestian aipatu den bezala, ezaugarri bereziko zenbait ikasle ditugula, bai beharrezkoak dituztelako, bai eta familia-egoera berezietan daudelako ere, etnia minorizatuko kideak ez aipatzearen. Honek guztiak, noski, eragina du emaitza akademikoetan. Ikastetxeak, bere mugen barruan jakina, ahalik eta zerbitzurik egokiena eskaintzen die guztiei. Kurtso bakoitzaren amaieran, emaitzak eta ikasleen tipologia kontuan izanda, HPBko irakasleak, tutoreak, aholkularia eta ikasketaburua hurrengo ikasturterako jarraipen plana,

PIREAK, NEC, ... antolatzen dituzte. BIDELEGUNA programa ezarri zenetik gure ikasleak partaideak dira, bi talde izan ditugu (5. eta 6, mailatan); ikasturte honetan, bereziki, talde bakarra dugu 5. mailan.

Gure zentroan askotxo dira ditugun indarguneak, hala nola, irakasleriaren prestutasuna proiektuak aurrera eramateko, ziklo desberdinen arteko koordinazioa, ikasleen partaidetza bultzatu egiten da, zentroaren kudeaketa egokia, ardurak era egokian banatzen dira...

Hala eta guztiz ere, beti dago hobetu daitekeen zerbaite eta gure ustez, hauek ditugu une honetan ikastetxeak dituen ahuleziarik nabarienenak:

-Hainbat proiektu berriztu egin behar ditugu, hala nola, hizkuntza-proiektua edo elkarbizitzakoa.

-Hezkuntza komunitateko kide guztien parte hartzea hobetu daitekeela uste dugu.

-Metodologiaren aldetik, konpetentzien garapenean lan gehiago egin dezakegula pentsatzen dugu.

-Familiei beraien esku-hartze eta inplikazioa zein garrantzitsua den jakinarazten asmatu behar dugu.

-Koherentzia pedagogikoa mantentzeko, barneko ebaluazioa berriztu egin behar dugu, konpetentzien ebaluazioa egin dezagun.

Aurreko zerak kontuan izanda, 21 - 22 ikasturtean "Berrikuntza Eraldatzen" Proiektuan aritzen erabaki genuen. 22 - 23 ikasturte honetan aurrera eramateko, 2 estrategia-palanka ezarri egin ditugu: "Guztiontzako eskola" eta "Denok eskolara".

Ekintza bi hauen bitartez, familien eskolarekiko partaidetza eta haien seme-alabengan motibazioa handitzeko jarduerak ezartzen dira.

Aldi berean, 2. palankek esparru bera jorratzen dute, eragileak umeak eta maisu-maistrak direlarik.

Emozioak eta ikasteko grina pizteko asmoz, metodologia berriak lantzen dihardugu... (Curriculum eta metodologiarekin lotura egin).

Ikasleen absentismoari dagokionean, azken ikasturte hauetan gutxitzeko ahalegin oso handia egiten ari dela esan beharra dago. Udaleko Gizarte Zerbitzuekin batera lan koordinatu oso garrantzitsua egiten da. Gure ikasleen artean, oraindik ere absentismo maila nahiko handia duten familia bakar batzuk geratzen direla esan beharra dago, hauek orokorrean, gutxiengo etnikoenak izaten dira, beraiek seme-alaben hutsegiteak forma batez edo besteaz justifikatzen

dituzte, hau dela eta ume hauen eskolarekiko motibazioa eta jarraipena nahiko eskasa izaten da. Haur Hezkuntza etapa derrigorrezkoa ez denez absentismoaren protokoloa ezin dugu aplikatu, beraz kasu hauetan eta gure zonaldeko ama hizkuntza erdera denez ume absentista hauek arazo nabarmenak adierazten dituzte komunikatzeko eta ikasteko momentuan. Une honetan, absentismo tasa ofiziala ikastetxean %4koa da gutxi gorabehera. Bestalde, eskola uzterik ez dugula ere esan dezakegu.

Familiei dagokienez, haien parte-hartzea aztertzean zera esan dezakegu: baditugu zenbait familia esku-hartze oso handia dutenak eta laguntzeko prestutasuna etengabe erakusten dutenak, baina, zoritxarrez, badira beste familia nahikotxo kontrako muturrean kokatzen direnak. Hala eta guztiz ere, familiek eskolako bizi-tzian presentzia handia dute. Izan ere, ekintza nahikotxo antolatzen baitituzte, hala nola, ikasleentzako euskaraz egindako antzezlan bat urtero antolatzea, ikastetxeko kanpoko eta eskolaz kanpoko ekintzetan inplikazio-maila oso altua dute eta Zuzendaritza taldearekin hilabetero koordinazio-bilerak egiten dituzte.

Aipatu dugun moduan, pandemia garaiko ikasturteak oso zailak izan dira guztiontzat. Esan beharra dago, gure ikasleak ederto egokitu direla egoera berri honetara, baina emozinalki oso ukituta daudela gero eta nabariagoa da.

Ikasleen ebaluazioari dagokionez, bereziki kezkatzen gaituen gaia dela esan beharra dago. Gure ustetan, ebaluazio hezigarria era egokian egiteko formazioa behar dugu. Leku gehiago egin beharko genieke ko- eta autoebaluazioari duda barik.

Irakasleen arteko koordinazioa bada kezka handia sortarazten gaituen beste gai bat. Irakasleen ordutegietan koordinazio hori egiteko tartea dago jasota.

Badaude, bestalde, beste hainbat gaik hausnarketa-prozesu bat eragin beharko luketeenak, hala nola, irakasleen arteko talde-lana bultzatzea, gorago aipatu den ebaluazio hezigarria egokiro egiteko formazioa abiatzea, metodologiaren inguruko hausnarketa eta trukatzeko prozesua martxan jartzea, gaitasun sozio-emozionalen lanketa sistematikoa ezartzeko plan bat diseinatzea, ...

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxeko ekipamendu digitala azpimarragarria da. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasle bakoitzak minieramangarri bat du ikasgelan, eta ikasgela bakoitzak du armairu elektrifikatua egoki gordetzeko.

Gela guztiek arbela edo pantaila digital elkarreragileak dituzte. Hirugarren zikloan, arbel horiek zaharkituta geratu dira, baina Hezkuntza-Sailak eskainiko duen hobeto egokitutako ekipamendu berri baten zain gaude.

WIFI konexioa egin daiteke bi eraikinetan, eta horrek koordinazioa eta linean egin beharreko

lana errazten ditu, bai ikasleena, baita irakasleena ere.

Informatika-ikasgela Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailetakoko ikasleekin lan egiteko badago. Irakasle bakoitzak CPUa du ikasgelan. Beharrezkoa izanez gero, ordenagailu eramangarriak eskura daude.

Microsoft 365 eta Google Workspace dira zerbitzu hornitzaileak ikastetxean.

Windows eta Ubuntu dira eskura ditugun Sistema eragileak.

Hainbat app eta erreminta informatikoak erabiltzen dira egunerokotasunean (Ta-tum irakurketa lantzeko, Liveworksheets fitxa interaktiboak diseinatzeko eta lantzeko, Breakouts eta aurkezpenak egiteko, Genially ikas-egoerak diseinatzeko, eta Google Workspacen eta Microsoft 365 plataformen bidez eskainitako erremintak, (Clasroom, Sites, Teams, Sharepoint, ...).

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Dokumentu honetan aurkezten dugun Proiektuak jasotzen ditu gure ikastetxearen konpetentzia digitala hobetzeko garatzen ari diren jarduerak. Baita, azken urteetan hezkuntza-prozesuak hobetzeko ikastetxeetan ezarri eta egonkortu diren hainbat baliabide, tresna eta zerbitzuak ere.

Beharrezkoa da:

- ikastetxea eraldaketa-unitate bezala ulertzea
- bertako Zuzendaritza Taldeak bultzatzen dituen hobekuntza planak diseinatzea Horretarako, DigCompOrg markoak laguntzen digu ikuspegi global batetik:

- gure ikastetxeen errealitatea aztertzeke
- etorkizunerako ekintza planak diseinatzeko

Gaur egun, gure gizartea are eta digitalizatuago dago. Hortaz, geure ikastetxeak erantzun behar die gizartetik eta lan-merkatutik heltzen zaizkien eskaerei. Ikastetxeak etorkizuneko hiritarrak ingurune oso digitalizatu batean ondo moldatzeko prestatu behar ditu.

Gaur egun ezinbestekoa da teknologia erabiltzea ikastetxeko praktikan:

- antolamendu-alderdian
- irakas-ikas prozesuetan.

Plan honen bitartez lortu nahi ditugu:

- Ikastetxearen egoera ebaluatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerari dagokionez.

- Plan Digital batek hezkuntza-erakundearen estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.

- Zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea. Horretarako, beharrezkoa da digitalki konpetentea izatea.

- Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak inplikatzeko ikastetxeetako kultura digitala garatzeko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Gure Proiektua diseinatzeko jarraitu ditugun urratsak:

- ideia nagusiak jaso
- lehentasunak zehaztu
- planifikazio mailak ezarri, hala nola: programak, proiektuak, ekintzak...

Horiek markatzen ari dira ikastetxearen lan plana hobekuntza prozesuan zehar.

Zuzendaritza taldearen parte-hartzea ezinbestekoa da Proiektu Digitalaren diseinu eta ezartze prozesuan:

alde batetik, ikuspegi globala emateko eta bestetik, baliabideak izendatzeko eta ardurak banatzeko.

Ikastetxearen Proiektu Digitalak:

- Gaur egun ikastetxea non dagoen ulertzea laguntzen du. Ikastetxearen egoeraren analisia: autoebaluazioa eta hausnarketa.
- Ikastetxeak nora iritsi nahi duen zehazten du: helburuak.
- Ikastetxea egoera batetik bestera eramaten duen bidea marrazten du: helburuak lortzeko ekintzak zehaztea.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Gure Ikastetxearen Proiektu Digitala kokatu behar da ikastetxeko testuinguru zabal batean. Testuinguru hori gure Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean zehazten da. Beharrezkoa da dokumentu horiek bat etortzea eta guztiz osagarriak izatea.

IUPen badago bereziki Digitalizazio Proiektuarekin lotura zuzena duen helburu bat:

"Konpetentzia digitala garapenerako metodologiak sustatuz ikas egoera berriak sortzea. Irakasleria IPD helburuetan aritzea".

Digitalizazio Batzordean lantzen dugu Proiektu Digital honen diseinua eta jarraipena.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Gure Ikastetxearen egoeraren analisia kontuan hartu ditu DigCompOrg markoak ezarritako 3 dimentsioak: pedagogikoa, teknologikoa eta antolamenduzkoa.

Eta marko honek gure Ikastetxearen analisia 8 eremuetan oinarrituta dago:

A. Lidergoa.

Emaitza deigarriak:

Deigarria egiten den lehenengo kontua zera da: Zuzendaritza Taldearen balorazioak beti direla altuagoak irakasleenak baino.

Bigarren galdera da tarterik altuena adierazten duena, puntu oso batekoa. Galdera hau da: “*Desarrollo de la estrategia con el profesorado*”.

Oro har hartuta, eman den balorazioa 3-4 tarte horretan dago.

Aurreko emaitzen zergatiak/motiboak:

Gerta daiteke Zuzendaritza lanetan dabilen jendea gai honekin harreman oso zuzena izatea.

Seguruenik ikastetxearen “egitura digitala” argiago azaldu beharko da. Bestalde, agian formazio-saioak antolatu beharko genituzke arlo honetan irakasleak seguruago sentitzeko.

Berrikuntza Teknopedagogikoko lana aurrera eramaten ari gara A2 ikastaroen moduluekin.

B. Kolaborazio eta sareak.

Emaitza deigarriak:

Deigarria egiten den lehenengo kontua zera da: Zuzendaritza Taldearen balorazioak beti direla altuagoak irakasleenak baino.

Bigarren galdera da tarterik altuena adierazten duena, puntu eta 4koa. Galdera hau da: “*Debate sobre el uso de la tecnología*”.

Lehenengo galderan ere tarte oso nabaria dago iritzien artean, kasu honetan puntu eta 3koa. Galdera hau da: “*Evaluación del progreso*”.

Oro har hartuta, eman den balorazioa 3-4 tarte horretan dago. Hala ere, eremu honetan irakasleen balorazioa nabarmen baxuagoa da.

Aurreko emaitzen zergatiak/motiboak:

Gerta daiteke Zuzendaritza lanetan dabilen jendea gai honekin harreman oso zuzena izatea.

Seguruenik ikastetxearen beharretako bat izango da teknologiaren erabileraren inguruan hausnarketa-prozesu bat abiatzea, akordio batzuetara iristeko.

Seguruenik irakasleek ikusten duten beharra zera izango da: Digitalizazio prozesuaren jarraipena egin behar dela. Honetarako, oso gomendagarria ikusi zen Digitalizazio Batzordea

osatu eta sistematikoki martxan jartzea: hainbatero bildu eta bilera horietan erabakiak hartu prozesuaren ebaluazioan oinarrituta.

HHn ordezkari bat, LHN ziklo bakoitzeko ordezkariak, BeA arduraduna eta Zuzendaritza Taldeak osatua da.

Argi dago irasleen iritziz lan handia egin behar dela eremu honetan. Kolaborazio-sareak sortu, indartu... beharko ditugu. Ondo legoke honetarako dauden aukerak aztertu eta ikastetxean inplementatzea. Honetarako oso garrantzitsua da irakasleei informazio eta formazioa ematea.

C. Azpiegitura eta ekipoak.

Emitza deigarriak:

Deigarria egiten den lehenengo kontua zera da: Zuzendaritza Taldearen balorazioak beti direla altuagoak irakasleenak baino. Puntu bakar honetan gertatzen da ikasleen balorazioa altuxeagoa dela Zuzendaritza Taldearena baino, ezagutzen dutelako eskola osoko antolakuntza eta askotan sortzen diren arazo tekniko guztietaz ohartarazten baitira.

Hirugarren galdera da tarterik altuena adierazten duena, puntu oso bikoia. Galdera hau da: *“Acceso a internet”*.

Oro har hartuta, eman den balorazioa 3.5-4 tarte horretan dago.

Aurreko emitzen zergatiak/motiboak:

Eremu honetan azpiegitura eta gailuak aztertzen dira. Une honetan ikastetxean dagoen sarea nahiko potentea bada ere, ez da gauza bera ordenagailu bakar batekin lan egitea edo hainbatekin batera.

Irakasleen balorazioa nahiko altua bada ere, 3.8koa, Zuzendaritza Taldearena baloraziorik altuena da, 5 puntukoa. Arestian esan bezala, honen arrazoa bada gela batean ordenadore asko batera konektatzen direla eta honek, jakina, konexioa moteldu egiten du.

Nahiko argi dago azpiegituran inbertsio handia egin dela eta horrek balorazioan eragina izango zuen, noski. Eremu honetan nahiko ondo gaudela esan daiteke.

D. Garapen profesional jarraia.

Emitza deigarriak:

Deigarria egiten den lehenengo kontua zera da: Zuzendaritza Taldearen balorazioak beti direla altuagoak irakasleenak baino.

Lehenengo galdera da tarterik altuena adierazten duena, puntu eta laukoa. Galdera hau da: *“Necesidades de desarrollo profesional continuo”*.

Oro har hartuta, eman den balorazioa aurreko eremuetan baino baxuxeagoa da, bereziki hirugarren galderan: *“Intercambio de experiencias”* izenekoan.

Aurreko emitzen zergatiak/motiboak:

Gerta daiteke Zuzendaritza lanetan dabilen jendeak eremu honetan formazioa jasotzeko aukera gehiago izatea irakasleek baino. Baita ere, kontuan hartu beharko genuke ordutegiak ere abagune handiagoak ematen dituela Zuzendaritza Taldean ibiltzen den jendearentzat

Nahiko argi dago jendeak etengabeko formazioa eskatzen duela. Honetarako erraztasunak eman beharko ziren Sailaren aldetik, baina ezin da baztertu gure arteko formazioak eskaini ditzakeen aukerak.

Aurrekoarekin lotura handia du puntu honek. Agian antolatu beharko genuke era sistematiko batean irakasleen arteko bilerak gai honen inguruan norberaren esperientzia besteekin partekatzeko.

E. Pedagogia: Laguntzak eta baliabideak.

Emitza deigarriak:

Deigarria egiten den lehenengo kontua zera da: Zuzendaritza Taldearen balorazioak ia beti direla baxuagoak irakasleenak baino. Kasu bakar batean gertatzen da aldrebes: “*Empleo de entornos virtuales de aprendizaje*” izenekoan. Gainera, justu puntu honetan ematen da balorazioen artean tarterik handiena, 0.8koa izanik.

Oro har hartuta, eman den balorazioa 3-4 tarte horretan dago.

Aurreko emaitzen zergatiak/motiboak:

Bereziki arraroa suertatzen zaigu balorazio hau. Dena dela, irakasleak dira gehienetan puntu honetan baloratzen dena erabiltzen dutenak. Hortaz, euren balorazioa kontuan hartzeko modukoa da. Arlo honetan formazioa behar dugula ondoriozta daiteke.

Eremu honetan hobekuntza beharra ikusten den arren, orokorrean balorazioak ez dira oso baxuak. Hala ere, sakontzeko moduko eremua da, duda barik.

F. Pedagogia: Gelako inplementazioa.

Emitza deigarriak:

Eremu honetan eman diren balorazioak nahiko parekaturik daude.

Bigarren galdera da tarterik altuena adierazten duena, 0.7koa alegia. Galdera hauxe da: “*Implicación del alumnado*”

Oro har hartuta, eman den balorazioa 3ren bueltan dago, nahiko baxua beraz.

Aurreko emaitzen zergatiak/motiboak:

Eremu honi dagokionean, kasu handiago egin behar zaio irakasleen balorazioari. Izan ere, haiek baitira bertan aztertzen diren gaiekin harreman zuzenena dutenak.

Irakasleen balorazioa baxuagoa da eta, seguruenik, doituena. Haiek zuzenean egiten dute lan ikasleekin eta informazio asko daukate balorazio egokia egiteko.

Geletan IKT baliabideak erabiltzen ez daramagu denbora luze eta informazio falta dugula uste dugu. Pandemiak bultzada handia eman zion digitalizazioari, baina oraindik eskarmentu falta dugu. Hauxe bada, duda barik, beste arlo bat non formazioa beharko genukeen.

G. Ebaluazio-praktikak.

Emaitza deigarriak:

Deigarria egiten den lehenengo kontua zera da: Zuzendaritza Taldearen balorazioak beti direla altuagoak irakasleenak baino, kasu honetan gainera dezente altuagoak.

Orokorrean balorazioen arteko tartekak nahiko handiak diren arren, bigarren galdera da tarterik altuena adierazten duena, 1.4koa alegia. Galdera hauxe da: *“Retroalimentación adecuada”*.

Galdera gehienetan puntuazio baxuak daude, bereziki irakasleen artean..

Aurreko emaitzen zergatiak/motiboak:

Eremu honetan berriro ere kasu handiagoa egin behar zaie irakasleen balorazioei, honi dagokionean eskarmentu altuago dute eta.

Gerta daiteke ebaluazioa egiteko tresna digitalak ondo ez ezagutzea. Honek mesfidantza sor dezake. Hortaz, informazio falta handia dugu, seguruenik, era digitalean ebaluazio egokia egiteko tresnen inguruan. Ez hori bakarrik, baita haien erabilerari buruzkoa ere.

Ezagutza falta izan daiteke arrazoietako bat. Horretarako, informazioa eta formazioa funtsezkoak dira.

H. Ikasleen kompetentzia digitalak.

Emaitza deigarriak:

Deigarria egiten den lehenengo kontua zera da: Zuzendaritza Taldearen balorazioak eta irakasleenak nahiko parekoak direla. Kasu gehienetan 3ren inguruan, gainera.

Material digitalaren sormenari erreferentzia egiten dioten galderetan ikusten dira puntuaziorik baxuenak.

Oro har hartuta, eman den balorazioa 3ren bueltan dago.

Aurreko emaitzen zergatiak/motiboak:

Ikasleen berezko prestakuntza arlo honetan gero eta handiagoa bada ere, segurtasunez eta era egokian erabil dezaten lan handia dago oraindik egiteko.

Arlo horretan ez ditugu oraindik nahiko prestaturik ikusten gure ikasleak. Argi dago tresna egokiak eman behar zaizkiela eta horretarako guk ere formazioa behar dugula.

Puntuazio nahiko baxu horren arrazoiak izan daiteke arlo honetan jendeak formazio beharra ikusten duela.

Arlo tematikoen arteko aldeak:

Kontuan izanda puntuaziorik altuena 5 dela, arlo guztietan, bakar bat kenduta, erditik gora gaudela ikusten da txostenean. Erdiko puntuaziora iristen ez den arloa ebaluazioaren ingurukoa da (G arloa, alegia). Irakasleen balorazioan gertatzen da, 2.4koa izanik.

Orokorrean, arloen artean aldeak badaude ere, ez dira bereziki handiak, arlo bakoitzean puntuaziorik altuena hartzen badugu. Era honetan azterturik, muturreko puntuazioen arteko aldea 0.7koa litzateke.

Emaitzaren datu deigarriak:

Kasu gehienetan zuzendaritzak egiten duen balorazioa hobea da gainerakoena baino. F eta H arloetan kenduta. Zenbait kasutan aldea oso handia izanik, B arloan esate baterako. Pedagogiari dagozkion arloetan (E eta F arloetan, alegia) zuzendaritzak eta irakasleek balorazio bera egiten dute, nahiko altua bestalde. Orokorrean emaitzak nahiko altuak dira. Haien konpetentzia digitalen inguruan ikasleek egin duten balorazioa nahiko baikorra izan da, gainerako taldeena baino dezente baikorragoa.

Aurreko emaitzen zergatia/motiboa:

Irakasleek G arloan eman duten puntuazio baxuaren arrazoietakoa bat ebaluazioa era digitalean egiteko tresna gutxi ezagutu izana edo haiekin gehiegi fidatu ez izana. Bestalde, ikusten da ez dagoela konfiantza handirik ematen den feedback-arekiko. Hobetu beharreko beste arlo bat autoebaluaizoa dela ematen du.

B atalean ere puntuazio nahiko baxua dago irakasleen aldetik. Honek adierazten du kolaborazioa bultzatzeko ahalegin handia egin behar dugula.

BESTE EREMUAK

Teknologien erabilera mugatzen dituzten faktoreak

Aipatzen den faktoreetako bat zera da. *“Ekipo digital nahikorik ez egotea”*. Portzentaia % 61.5ekoa da. Halako datu altua apur bat harrigarria izan daiteke. Egia da, beti behar dela dagoena baino gehiago, baina, 3. zikloan, bereziki, une honetan nahiko ondo gaude. Hori bai, ezin da ahaztu beste ziklo batzuk daudela eta, dudarik gabe, irakasleen artean ere gabeziak daudela puntu honetan, guztiek ez dutelako ekipo bat eta klaseetako hornikuntza zaharra delako.

Aipatzen den beste faktore bat honakoa da: *“Irakasleentzako denbora falta”*. Kasu honetan aipatzen den portzentaia aurreko faktorean aipatutako bera da. Egia da irakasleek betebeharrak anitz dituztela.

Puntuazio altua duen beste faktore bat hauxe dugu: *“Nahikoak ez diren konpetentzia digitalak dituzten irakasleak”*. Izan ere, faktore honetan dagoen portzentaia %65.4koa da. Honetarako arrazoiak askotxo izan daitezke, hala nola, denbora falta formazioa egiteko, formazio eskaintza nahikoa ez izatea... Gure ustez, honek esan nahi duena zera da: arlo honetan, hots, konpetentzia digitaletan formazio beharra dugula.

Prestakuntza jardueren erabilgarritasuna

Item bakoitzean erantzun-kopuru desberdinak daude. Gerta daiteke galdetzen denaren inguruan esperientzia-maila desberdinak izatea.

Erantzun gehienetan prestakuntza jardueren baliagarritasuna ikusten da, baina ez oso maila

altuan. Agian, buruturiko prestakuntza saioek ez dute irakasleen beharrekin bat egin edo ez dira guztiz dinamikoak. Azken bolada honetan bizi izan dugun egoera pandemikoak formazio-saio gehienak online egitera behartu gaitu. Seguruenik ez da aukerarik onena interakzioa bultzatzeko. gure ustez formazio-saio presentzial gehiago behar ditugu, bai eta irakasleen beharretatik abiatzen direnak ere.

“*Visitas de Estudio*” izeneko item-ean izan ezin, guztietan dagoen batazbestekoa 3tik gorakoa da. Item horretan jaso diren erantzunen kopurua 10 lagunena baino ez da izan. Baliteke halakoetan jende gehienak parte hartu ez izana.

Segurtasuna teknologia erabiltzean

Irakasleek teknologia erabiltzean nahiko seguru sentitzen dira. Puntuazaiok nahiko parekoak dira eta 3.1 eta 3.7 tartean dabilta. Honetarako arrazoietako bat konfinamendu garaian gure ezagutzei eman behar izan genien bultzada ederraren atzean egon daiteke.

Item-en artean puntuaziorik baxuena jaso duena honakoa da: “*Feedback eta laguntza*”, 3.1eko puntuazioa lortuz. Izan ere, baliabide digitalen bidez feedback-a ematen ez gaude oso ohituta, akaso azalpena honetan datza. Hau honela, mereziko luke gai honen inguruan formazioaren bat jasotzea, hau da, “baliabide digitalen bidezko feedback-a”

Irakasleek IKTak erabili duten denbora portzentaia

Batezbestekoa ez da oso altua izan. Izan ere, lortutako puntuazioa 2.8koa izanda. Seguruenik, honen atzean zera egongo da: ziklo desberdinetan egiten den IKT baliabideen erabilpena nahiko desberdina dela maisu-maistraren arabera. 3. zikloan nahikotxo erabiltzen den bitartean, gainerako zikloetan ez da horrenbeste erabiltzen. Hasteko, baliabide gutxiago ditugu, ezin da ahaztu ikasleek soilik 3. zikloan dutela ordenadorea. Gehitu horri gainera, gure ikasle batzuen kasuan familian ere ez dutela ez Interneterako sarbide, ezta ordenadorerik ere. Bestalde, tresna hauek erabiltzen umeen trebetasuna ere eskasagoa da txikiagoak diren heinean. Pentsatu beharko genuke zer egin dezakegun gure ikasleek IKT baliabideak gehiago erabiltzeko. Aukera bat litzateke prestatzen ditugun Unitate Didaktiko edota Proiektuetan IKT baliabideei lekua eskaintzea.

Teknologia erabiltzen hastea (irakasleak)

Teknologia digitalak erabiltzen batera hasten garela izan da gehien eman den erantzuna. Ezin ahaztu, bestalde, irakasleen %25ek diola beranduago hasten direla erabiltzen. Potzentaia hori jaisteak izan beharko luke gure helburua. Erantzuna horren atzean zer dagoen jakin beharko genuke. Izan ere, lanpostu batzuetan IKT baliabideak erabiltzeko ohitura eta behar txikiagoak daude, Gorputz Hezkuntza kasu. Dena dela, erabilpena bultzatzeko bide bat gorago aitatu da: prestatzen ditugun Unitate Didaktiko edota Proiektuetan IKT baliabidei lekua eskaintzea, alegia.

Ezin ahaztu beste alde batetik, %8 batek esan duela bere burua berriztatzailetzat duela. Pozgarria bada ere, portzentaia hori handitzea ondo legoke. Horretarako jendeari konfiantza eta denbora eman behar zaio: Formazioa eta praktikatzeko denbora.

Ikasleen teknologiaren erabilera

Emandako erantzunen kopurua altua da; hortaz, datuak nahiko fidagarriak dira.

Datu hauetatik honakoa ondorioztatu daiteke: gure ikasleek, orokorrean teknologia berriak nahikotxo erabiltzen dituztela, bai ikastetxean, bai eta etxean ere.

Kezkagarria den datu bat honakoa dugu: %42k ea inoiz ez dituela erabiltzen teknologia berriak ikastetxetik kanpo ikasteko asmoarekin. Arrazoa zein den argi ez dagoen arren, arrazoietako bat motibazio falta izan daiteke. Horretan ikastetxeak badu zeregina. Agian, etxerako lan gehiago agindu beharko genituzke teknologia berrien erabilera eskatzen dutenak. Ezin da ahaztu, bestalde, gurean baditugula hainbat ikasle metodokogia hauek erabiltzeko aukerarik ez dutenak. Kasu honetan ere, zerbait planteatu beharko genuke. Hausnarketa prozesu bat, kasu horretan dauden ikasleekin nola jokatu behar dugun adosteko.

Bestalde, galdera berearen aurrean ikasleen %31k dio egunera ordu bete baino gehiagotan erabiltzen dituela teknologia berriak ikastetxetik kanpo ikasteko asmoarekin. Hauxe pozgarria da. Seguruenik, kasu horretan dauden ikasleek zer egiten duten aztertu beharko genuke, antzeko zerbait planteatzeko gainerakoei.

Ikasleak ikastetxetik kanpoko gailuak eskuragarri izatea

Kontrakoa espero baziteken arren, portzentaia altu batek, %46k, tresna digital egoki bat du etxean, beste askok, %28k, partekatu behar badu ere, behar duenean tresna digital bat du etxean erabilgarri.

%17k ez du behar bezalako tresna digitalik etxean. Komenigarria litzateke honen inguruan ikastetxean hausnarketa prozesu bat zabaltzea, balizko konponbide baten bila.

